

BALIABIDEAK

Guk behar dugun baliabide nagusia interneta, hau da, web-orri bat da. Horretarako erabiliko ditugun baliabide nagusienak honako hauek dira: Aitorrek web-a egiteko duen ahalmena, Nerea eta Nahiak publikoaren aurrean gauzak azaltzeko duten gaitasuna, Enekoren sormena eta Beñaten ikuspegia merkatuarekiko. Gure proiektua aurrera ateratzeko zenbait laguntza ere jasoko ditugu. Adibidez; laguntza informatikoa edo eta produktua jende aurrean jartzerakoan merkatua ezagutzen duten zenbait pertsonen laguntza jasoko dugu.

Gure proiektua internet eta sarearen baliabidez aterako dugu aurrera eta hauek printzipioz dohakoak dira horregatik ez dugu finantza baliabiderik behar.

Jarduerari dagokionez, gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, gure enpresa manufaktura-enpresa bat da, diseinatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak dituena.

Horrez gain, oso garrantzitsua da enpresarentzat, webgunea eta online denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak eta hauen bidez gure proiektua tontorreraino eraman genezake.

